



## Adunak urte berriarekin batera autoei eta oinezkoiei zuzendutako **errepide berria** izango du

Azken asteetan Aduna herrira igotzeko errepidea zabaltzen ari dira, eta bide berriak oinezkoiei eta bizikletei zuzendutako espaloia izango du **7**

## Aurtengo 45. Tolosako Abesbatza Lehiaketak **Migel Arretxe** zendu berria izango du gogoan

Azaroaren 1etik 3ra bitarte izango den nazioarteko lehiaketa krisiak «sekula baino gogorrago» jo duen arren, haur abesbatzen atala berreskuratu dute **2**



# tolosaldeko **ataria**



TOLOSALDEKO **hitza** info



Asteazkena, 2013ko urriaren 23a. 1. urtea. 12. zenbakia. [www.ataria.info](http://www.ataria.info)

Joxe Ramon Apalategi Fiare-ko kidea

## «30 milioi euro banatu ditugu maileguetan»

Fiare banku etikoaren inguruko mahai ingurua antolatu dute gaur Tolosako kultur etxean, 19:00etan **3**



A.I.

## GASTRONOMIA ARDATZ HARTUTA TURISMOA SUSTATZEKO, IHESALDIAK

Tolosa Goxua, Txuleta Festa eta Babarrun Azoka hartu dituzte, eta sei pakete ezberdin prestatu dituzte **6**

## GARAGARDOA ETA MUSIKA IZANGO DIRA, ANOETAN

Larunbatean III. Urrifest Garagardo Azoka izango da plazan, eta jarraipena gaztetxean izango du kontzertuekin **6**



## Hondakinak sailkatzeko, bost aukera

Tolosako Udalak hasi du hondakinen bilketa sistema erabakitzeko atzera kontaketa. Atzo herri batzarrean aurkeztu zitzaizen herritarrei (goiko argazkian) Idema enpresak aztertu eta alderatu dituen bost sistema ezberdinen

azterketa, eta aste pare bat barru hondakinen mahaia sistema horien artean aukeratu beharko ditu zeintzuk betetzen dituzten ezarritako helburuak. Zein sistema jarri udalbatzak erabakiko du, urtea amaitu aurretik. **4-5**



## sarrerak

Atarikideentzat **sarrera pare bat** dugu

Urriak 26, larunbata  
19:15ean  
Donostiko Ilunben

**Gipuzkoa Basket Club**  
-  
**Fiatc Juventut**  
**Saskibaloi partida**



Atarikideentzat **bi tarta** ditugu

Urriak 26, larunbatean ospatuko den  
**Tolosa Goxua azoka**  
bereziaren baitan  
Tolosako gozogileek egindakoak



Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira

# Aurtengo Abesbatza Lehiaketa Arretxeren omenez izango da

Azaroaren 1etik 3ra bitarte izango da «krisiak sekula baino gogorrago» eragin dion nazioarteko lehiaketa

ITZEA URKIZU TOLOSA

45. Tolosako Abesbatza Lehiaketan leku berezia izango du zendu berri den Migel Arretxek. Nazioarteko lehiaketaren aurkezpenean hura gogora ekartzeko hitz eta gorazarreak izan ziren nagusi, eta Elena Basagoitia Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakariak, Ibai Iriartek Tolosako alkateak eta Ikerne Badiolak Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura, gazteria eta kirol diputatuak aurtengo lehiaketa bere omenezkoa izango dela nabarmendu zuten. Aurtengo lehiaketaren beste ezaugarri nagusia krisia da, «sekula baino gogorrago» eragin baitio. Dena den, antolakuntzan «tinko» jarraitzea erabaki dute, TEEko kideek, eta azaroaren 1etik 3ra bitarte munduko ahotsik onenetakoak izango dira Tolosan entzungai.

«Tolosa munduan jartzen du lehiaketak, eta mundua Tolosara ekartzen du era berean», Ibai Iriarte alkatearen ustez. Horrela, guztira hamar herrialdetako hamasei abesbatza izango dira, azaroaren 1etik 3ra, Tolosan. Horrela, Herrialde Katalanetako, Indonesiako, Finlandiako, Madrilgo (Espainia), AEBetako, Estoniako, Errusiako, Txekiar Errepublikako, Suediako eta Alemaniako ordezkari musikalak izango dira Leidor aretoko oholtzan.



Elena Basagoitia, Ikerne Badiola eta Ibai Iriarte, Abesbatza Lehiaketaren aurkezpenean. i.u.

Bi motatako abesbatzek parte hartuko dute 45. lehiaketa honetan: batetik, ganbera abesbatzak etorriko dira, ahots nahasi nahiz ez nahasietakoak. Hauek, polifonia eta folkloreak sailean ariko dira; erlijiozko musikaren saila ez da izango, beraz, eta emanaldi guztiak Leidor aretoan izatea aurreikusita dute.

Aurten, gainera, iazko lehiaketan izan ez ziren haur abesbatzen atala berreskuratuko dute TEEko antolatzaileek, eta jendearen kuttunenetakoa dela nabarmendu: «Krisiak dirauen bitartean, ahots taldeen saila eta haur abesbatzen txandakatu izango gara urtez urte. Dena den, egoera ekonomikoak hobera egin bezain pronto, Tolosako Nazioarteko

Abesbatza Lehiaketaren jatorrizko formatoa berreskuratuko dugu», azaldu du TEEko lehendakari Elena Basagoitiak. Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuak Ikerne Badiolak, Tolosako Abesbatza Lehiaketa oso bere sentitzen duela azpimarratu du, abesbatza batean aritutakoa delako. Horrekin batera, tolosarrek ere bere egin duten egitasmoa dela uste du diputatuak, eta «errotuta» dagoela nabarmendu du. Horrela, lehiaketaz kanpo ere Tolosara bertaraten diren abesbatza guztiek Gipuzkoan, Euskal Herrian nahiz kanpoan eskaintzen dituzten emanaldi garrantzia berezia eman diete; guztira, 70 emanaldi baino gehiago eskainiko dituzte.

Lehiaketatik kanpo, baina Nazioarteko Abesbatza Lehiaketaren inguruan hiru saio ere antolatu dituzte. Batetik, iragan larunbatean izan zen abesbatzen topaketa, San Frantzisko elizan. Bestetik, datorren larunbatean, azaroaren 2an, Camera Reale taldearen emanaldia izango da, 19:30ean, Leidor aretoan. Azkenik, azaroaren 3an, kontzertu oso berezia entzungai izango da Topic zentroko aretoan: KEA ahots taldearen eskutik, Joxelu Anduezen eta Iñaki Epelderen omenezko emanaldia izango da.

Aipatzekoa da lehiaketako saio guztietako, nahiz sari banaketako sarrerak eskuragarri daudela jada, [www.kutxasarrerak.net](http://www.kutxasarrerak.net) atarian.

## Leherketak egingo dituzte, tunela egiteko

TOLOSA. Abiadura Handiko Trenaren lanen barruan, Tolosa-Hernialde zatian, hain zuzen ere, leherketak egingo dituzte tunel bat egiteko. Bada, atzo hasi ziren leherketa horiek. Lan horiek Tolosako Udaleren eskumenekoak ez badira ere, udalak adierazi duenez, «zorrotz» betearaziko dizkio enpresa eraikitzaileari horrelako lanetarako jarrita dauden baldintza guztiak, «herritarrek ahalik eta eragozpen gutxien jasana dezaten».

## Obren berri emateko batzarra, bihar

TOLOSA. Hastear dira Euskal Herria plazako (Andia kalea) eta Rondilla kaleko obrak. Euskal Herria plazari dagokionez, 1-B eraikinean alojamendu dotzionalak eraikitzeko obrak egingo dituzte. Rondilla kaleko 7-29 zenbakietan, berriz, saneamenduaren ordezkapena egingo dute. Bada, obra horie buruzko informazioa emateko, bihar, udaletxean batzarra egingo du, 19:00etatik aurrera.

## Zumba ikastaroarekin hasi dira Belauntzan

BELAUNTZA. Zumba ikastaroa antolatu dute Belauntzan, eta oraindik ere animatzen direnzentzat lekua badagoela azaldu dute. Astelehenean, 20:30etik 21:30era eta asteazkenetan, 19:00etatik 20:00etara ematen dute. Astean bi egunetan nahiz egun bakarrean parte hartzeko aukera dago. Bi egunetan eman nahi dutenek hilean 20 euro ordainduko dute, eta astean eskola bakarra jasotzen dutenek, 10 euro. Interesatuek gizarte dinamizatzailearen zenbakira 685 712 782 (Ainitze) deiz dezakete izena eman edota edozein zalantza argitzeko.

## Iragarki laburrak

### LAN BILA

**Etxeko lanetarako:** etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientzia haundiko emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka. 943 696882 / 606 521992

### AURKITUTAKOAK

**Eguzkitako betaurrekoak:** Eguzkitako betaurrekoak topatu ditut Amasa-Villabonan, Sacem inguruan. Galdu dituenak, deitu dezala 647 958253 telefono zenbakira.



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## Irudia Alegia



## LOMCE legearen aurka egin dute

LOMCE legearen aurka eta eskola publikoaren alde mobilizazio ugari deitu dituzte biharko. Bada, deialdiarekin bat eginez, elkarretaratzea egin zuten atzo

Alegiako eskolan. Legea ez aplikatzea eta eskola publikoa bere hezkuntza sistema eraikitzen joatea eskatu zuten bildutako irakasle, guraso eta ikasleek. I.T.

Joxe Ramon Apalategi • Fiare banku etikoko kidea

# «Bazkideak egiteari izugarrizko garrantzia ematen diogu»

Tolosan informazio bulegoa zabalduko dute asteleheneetan; gaur mahai ingurua antolatu dute kultur etxean, 19:00etan

ASIER IMAZ

Donostiako Gureak enpresan 22 urte daramatza lanean Joxe Ramon Apalategik (Ikaztegieta, 1953). Enpresa zientzietan lizentziatua, eta elizaren inguruko mugimenduetan boluntarioa. 2005ean ezagutu zuen Fiare proiektua, Karitasen inguruan lanean zebilela. Lehen unetik erakarri zuen banku etikoaen ideiak, eta bazkide egitea erabaki zuen. Eskualdeko bazkide gehiago egon bazirela dio Apalategik, baina ez ordezkariarik, eta ondorioz, Tolosaldean talde bat osatu ondoren, duela bi urte Fiare proiektua zabaltzen hasi zen ikaztegiatarra. Gaur Tolosan antolatu dute eskualdean egingo duten urteko hirugarren ekitaldia. Urte amaieran, Tolosaldeko bazkide guztiarekin batzarra egingo dute.

## Banku etikoak egoteak zer esan nahi du, etikarik gabeko bankuak txak daudela?

Gaur, Tolosan egingo dugun mahai inguruan Zure diruarekin dokumentala ikusiko dugu, hain juxtu, diruarekin bankuak zer egiten duten azaltzeko. Banku horiek ez dira ez dakit nongo bankuak, gertukoak baizik.

## Zer egiten dute diruarekin?

Arma industriara bideratu, munduan desberdintasuna areagotzen duten makroproiektuetara... Hori errealitate bat da, baina ez hori bakarrik: euren irabaziak paradisu fiskaletan dituzte askok eta askok. Ikuspegi etiko batetik egiten dituzten inbertsio gehienak susmagarriak edo zalantzak dira.

## Banku etikoak egiten dituztela diote iragarkietan.

Ez dugu ezer horien aurka, baina portzentajeak begiratu gero, gizarte ekintzetara kopuru txiki bat bakarrik bideratzen dutela ikusten duzu. Sarri, itsura egiteko besterik ez da.

## Zer da orduan banku etiko bat?

Bere inbertsio guztiak gizarte helburuetara bideratzen dituen banku bat.

## Eredu bakarrek banku etikoak al daude?

Estatu mailan ezagunenetakoa dena, beste eredu juridiko batekin sortua da. Gu mailegu kooperatiba bidetik goaz, eta eurak, bazkide kapitalisten bidez sortu zuten banku etikoak; sozietate anonimo baten moduan funtzionatzen dute, baina

egia da, bere inbertsio guztiak ikuspegi etiko batetik egiten dituztela.

## Zuen kreditu kooperatiba estatua bakarrik mugatzen al da?

Fiare-ren helburuetako bat Europa mailako mailegu kooperatiba bat izatea da. Bide horretatik, 2005ean, Europako beste banku etikoaren esperientziak ezagutzen eta baloratzen hasi ginen. Horrela, Italiako Banco Popolare Etica-rekin elkarlanean hasi zen Fiare.

## Zein ondorio ekarri du elkarlanak?

Akordio hori lortu bezain pronto, Espainia mailan agente finantzario bezala hasi zen lanean Fiare. Aurten, Italiako bankuak Banco Popolare Etica-ri nazioarteko izaera onartu dio, eta horrek, aurrera pauso handia dakar. 2014ko udaberritik aurrera, Fiare beste edozein bankuarekin dituen zerbitzuak ematen hasiko da estatu mailan, italiarren babesarekin, eta euren diru deposituekin kontatuz.

## Zer egin behar da Fiare-ko bazkide egiteko?

Guretzat une honetan hori da garrantzitsuena, beste bankuarekin etor litezkeen bezeroak lortzea baino, bazkideak egitea. Fiare-k bi ardatz nagusi ditu. Alde batetik, sistema ekonomikoak sortu dituen desberdintasunak, eta bere egitura eta izaera dituen oinarri ez etikoak gainditzeko instrumentu finantzarioak sortzea, eta bestetik, egitura ez etiko horren aurka dabilzan mugimendu, erakunde eta norbanakoak elkartzea, eredu finantzario berri batean. Bigarren puntu honek, beraz, banku etikoaren ideia gizarartzea dakar. Horri izugarrizko garrantzia ematen diogu, eta horregatik jarri nahi dugu nagusiki gure indar guztia bazkideetan.

## Hitzorduak

### GAUR, URRIAK 23

**19:00.** Tolosako kultur etxean 'Zure diruarekin' dokumentala eskainiko dute. Ondoren, mahai ingurua.

### HILAREN 28TIK AURRERA

**Astelehenero.** Tolosako Plaza Berriaren dagoen Abastos eraikineko lehen solairuan, 18:00etatik 20:00etara, Fiare banku etikoaren bulegoa zabalik egongo da.

## Eta horretarako, zuen bulegora joatea nahikoa al da?

Bertan informazioa zabaltzen dugu, eta bazkide egiteko, txartela bete eta 300 euro jartzea nahikoa da.

## 300 euro horiekin zer gertatzen da ondoren?

Momentu honetan elkartean gelditzen dira, hau da, diru hori ezin da sare finantzarioetan erabili. Nahi duenak, nahi duenean berreskuratu lezake. Bazkideetza hori, elkarrekin kooperatibo baten partaidetza da. Entitate guztiek legez oinarri batzuk bete behar dituzte, kapital bat izan behar dute, eta bazkideek jartzen duten diruarekin osatzen da kapital hori. Gero, diru hori kreditu moduan erabili ahaliko da.

## Banku etikoaren beste ezaugarrietako bat, diruaren ibilbidea publiko egitearena da.

Gure web orrian, [projectofiare.com](http://projectofiare.com)-en, zer nori eman zaion agertzen da. Mailegu guztiak eta diru kopuru guztiak argi eta garbi azaltzen dira. Partaidetzarekin batera, oinarri nagusienetakoa gizarte-ekonomia eta gardentasuna dira. Bata bestearekin loturik dago, gainera.

## Mailegu bat eskatu nahi duenak zer egin behar du?

Lehenik eta behin, Fiare-ren bulegotik pasa behar da. Informazio guztia bertara eraman behar da. Eskaria zehaztu ondoren, lurralde mailan gizarte-etika batzar bat dago. Bertan aztertzen dute eskatzaileak emandako informazio guztia, eta behar horien balantzea bertan egiten da. Gero, eskari horiek edozein banku bezala, irizpide tekniko batzuk gainditu behar dituzte. Nolabait esateko, bi iragazki pasa behar dira.

## Mailegua jasoz gero, itzultzerakoan interesak beste bankuekin alderatuz baxuagoak al dira?

Kasuan kasukoa aztertzen da. Faktore asko hartu behar dira kontuan, Fiare-ren baloreetara eskaria egokitzeko, besteak beste: proiektuaren bideragarritasuna; gizarte-ekonomia izan dezakeen eragina; lanpostuak sortzeko aukera ematen duen edo ez...

## Orain arte, zenbat diru mugitu duzue kreditu eta abarretan?

Estatu mailan 40 milioi euro inguru jaso ditugu dagoeneko. Horiek ez dira hemen bakarrik sortuak izan, kanpotik ere jaso ditugu, lehen aipatu bezala, Italiako Banco Popolare Etica-rekin elkarlanetik, adibidez. Jasotako indar eta laguntza guzti horiekin, jadanik 30 milioi euro banatu ditugu maileguetan. 2005az geroztik, italiarrekin lortutako akordioari esker, euren izenean ari gara diru hori ematen.



Joxe Ramon Apalategi ikaztegiatarra Fiare proiektuko kidea da. A. IMAZ

## Fiare inbertsio eta aurrezki arduratsuen fundazioaren bilakaera

Hego Euskal Herriko 52 eragile desberdinek Fiare fundazioa martxan jarri zuten 2003an. Inbertsio eta aurrezki arduratsuen fundazioa deitu zioten Fiare-ri, eta estatu mailan zabaltzeko ekin zioten, lurralde guztietara zabalduz. Gizartearen desberdintasunei aurre egite aldera, arlo finantzarioan hutsune bat zegoela ikusi zuten. Abiapuntu horretatik abiatuta, banku etiko bat sortzeko helburua jarri zuten. Une honetan, Fiare proiektuak 5.000 bazkide inguru ditu, eta horien artean, 600 eragile daude, baita instituzioak ere: Eusko Legebiltzarra, Gipuzkoako batzar orokorrak, Donostia, Eibar eta Errenteriko udalak... Eskualdeari dagokionez, Tolosako Udalarekin hizketan ari dira, eta elkarlana bidean dagoela diote. Harreman horien erakusle, Abastosen zabalduko duten bulegoa da. Ondoren, beste bailaretan egingo duten bezala, Tolosaldean informazioa zabaltzen jarraituko dute, erakunde eta eragile desberdinekin elkartuz. Gaur, Tolosan, hitzordua jarri dute banku etikoaren nondik norakoak azaltzeko: 19:00etan, kultur etxean.

# Hondakinen bilketa sistema berria erabakitzeke azken urratsak

A. OIARTZABAL - N. RDA. TOLOSA

Helburua argia da: hondakinen bilketa sistema berria ezartzen den lehen urtean %60-%70 bitarteko gaikako bilketa lortzea eta bigarren urtetik aurrera %70-%80 bitarteko gaikako bilketa erdiestea. Emaiza horiek ahalbidetuko dituen sistema erabakitzeke azken urratsak ematen ari da Tolosako Udala, eta atzo, Topic-en eginiko batzar irekian, herritarrei azaldu zizkien zein bost sistema posiblerekin gerturatu daitezkeen helburu horietara.

Ingurumen gaietan aditu diren Idema enpresako Roman Monasterio, Arrate Monasterio eta Eneko Ungilek aurkeztu zituzten bost sistemak, azaldu zituzten bakoitzaren ezaugarriak eta alderatu zituzten sistemak bata bestearekin; Ibai Iriarte Tolosako alkatea izan zuten lagun, eta Topic-en elkartu ziren ehun herritar ingururen galderak eta iritziak jaso zituzten.

## Bost sistema aztergai

Tolosako Udalak deitu zuen lehiaketa publikoaren bitartez egin du azterketa Idema enpresak, «eta honenek, Tolosako hondakinen mahaiak adostu zuen baldintza jakin batzuen arabera egin du azterketa», azaldu dio azterketaren nondik norakoa Iñigo Muñoz ingurumen teknikariak Tolosaldeko Atariari. Baldintza horien artean daude goian aipaturiko gaikako bilketa datu horiek lortzea, gaikako biltzen dena kalitate onekoa izatea edota hiri hondakinak ahalik eta gehien murriztea. Helburu hauek beteko zituen bilketa sistema ezartzea 2012ko uztailean erabaki zuen Tolosako Udalbatzak.

Bosgarren edukiontzia, derrigorrezko 5. edukiontzia, atez ateko bilketa sistema mistoa, atez ateko bilketa eta edukiontzi komunitarioen bidezko bilketa sistema dira Idemak aztertu eta alderatu dituen sistemak. Hondakinen mahaiak berak ezarritako pleguetan zetozen edukiontzi bidezko zein atez ateko bidez-

Atzo herri batzarrean aurkeztu zituen Tolosako Udalak hondakinak biltzeko bost sistema posible; adostutako helburuak zeinek bete ditzaketen proposatuko du hondakinen mahaiak, eta Udalbatzak erabakiko du zein jarri indarrean



Herritar ugari hartu zuen parte atzo iluntzean Topic-en egin zen herri batzarrean. NAIARA ROLDAN DE ARANGUIZ

ko sistemak aurkeztea eta alderatzea. Tolosako ingurumen teknikariaren arabera, hondakinak biltzeko sistema egokienak direlako aurkeztu dituzte, «eta hemen inguruan, Europan behinik behin, horiek erabiltzen direlako».

Bost sistemetan gaurkoaren antzirik handiena duena, bosgarren edukiontzia da. Izan ere, materia organikoa biltzeko beste edukiontzi berri bat jartzea besterik ez baita, eta erabilera borondatezkoa da. Hau da, parte hartu nahi ez duenak gaur egungo bilketa sistemarekin jarrai dezake. Parte hartu nahi dutenek, giltza edo txartela izango lukete hondakinak edukiontzian sartzeko.

Derrigorrezko bosgarren eduki-

nontziaren sistemak, berriz, borondatezko izaera gaintzitea du xede. Erabiltzaileari edukiontzia erabiltzeko giltza edo txartela emango diote, eta aldi berean bere hondakinak biltzeko boltsak. Boltsa hauek erabiltzaileak identifikatzeko sistema izango lukete.

Atez ateko bilketa sistema indarrean jarriz gero, erabiltzaile bakoitzak kalean ezartzen zaion lekuan utzi beharko du hondakina gaika sailkatua eta, dagokion orduan eta dagokion ordutegian. Erabiltzaile bakoitzak identifikazio kode bat izango luke eta jarraipen indibiduala egingo litzaiotke.

Atez ateko bilketa sistema mistoa aldiz atez atekoaren eta edukiontzien sistemak konbinatuko litzuke. Hala, materia organikoa, ontzi arinak, papera eta beira edukiontzien bidez biltzen dira, baina materia organikoaren edukiontzia zabaltzeko identifikazio txartela erabiltzea beharrezkoa izango da. Errefusa atez ateko biltzen da, zintzilikarioen bitartez.

Sistemarik berriena eta ezezagunena, hemen inguruan behinik behin, edukiontzi komunitarioen bidezko bilketa sistema da. Bilketa edukiontzi komunitarioetan oinarritzen da, eta herriguneko atari bakoitzak edukiontzi bana izango du auzokide guztien erabilpenerako. Egun bakoitzean hondakin frakzio

bakarra jasoko da edukiontzian, aldeztu aurretik ezarritako egutegi bati jarraituz. Hala, bizilagunek edukiontzia kalera atera behar dute finkatutako orduan eta behin bilketa zerbitzua pasa denean berriro atarian sartu behar dute.

Azken buruan, edukiontzietan oinarritutako bi sistema proposatzen dira: bata borondatezkoa eta bestea derrigorrezkoa. Atez ateko bilketa sistematan oinarriturikoak dira beste hirurak: bi etxez etxe egiten direnak eta azkena atariz atari egiten dena.

Idemak planteatu dituen bost sistemetan Tolosa «irla» bezala hartu dute inguruko sistemen arteko fluxu eta sinergiegi dagokienean. Baina

nabarmentzen dute Tolosako Mankomunitatearen zabor bilketa optimizatuagoa izango dela berori osatzen duten udalerrien bilketa sistemak berdina goikoak diren heinean.

## Hipotesiak sistemaz sistema

la ehun orrialdeetan bildu ditu Idemak ekainean hasi zuen lanaren ondorioak. Lortu beharreko helburuekin batera, Tolosaren ezaugarriak bildu, bilketa sistema bakoitzaren ezaugarriak xehetu eta, bakoitzarekin lortuko liratekeen balizko emaitzak atera ditu Idemak. Eta behin emaitza horiek guztiak eskuan, bata bestearekin alderatu, eta ondorio orokorrak atera ditu.

Hondakinak gutxitzea eta hortaz

## Bilera erabakiorrak datozen asteetan, eta herri batzarrak sistema berriari buruz informatzeko

Atzoko herri batzarraren ostean Tolosako hondakinen mahaiak pare bat asteko epea izango du Idema enpresak aztertu dituen hondakinen bilketa sistemen artean erabakitzeke. Iñigo Muñoz ingurumen teknikariak Tolosaldeko Atariari aurreratu dionez, hondakinen mahaiak osatzen duten alderdi politikoei (EAJ, Aralar eta Bildu) eta gizarte eragileek (Zero Zabor taldea, Tolosa Txukun, Tolosa&Co) adostu zituzten helburuetara gehien gerturatzen diren sistemak proposatzea da asmoa, «ahal dela, euren artean adostuta». Behin gaia hondakinen mahaiatik igaro ostean, «eta urtea amaitu aurretik», udalbatzak hartuko du indarrean jarriko den bilketa sistema berria zein izango den. Hori erabaki ostean, herri batzar berriak deituko dituzte Idema enpresarekin batera sistemaren nondik norakoez herritarrek informatzeko.

Arandia Jatetxea

Asteburuko menua  
25€

Babarrun jatea sakramentuekin 25€

Babarrunak, txorizoa, aza, saiheskia, odolkia eta urdaia.  
Postrea eta edaria

Altzo Diseminatua, 72 • 20268 ALTZO (Gipuzkoa)  
arandiajattetxea@gmail.com • 943 652 262

errefusa murriztea izanik helburuetako bat, Idemak eginiko azterketaren arabera, derrigorrezko sistemek soilik lortzen dute 3.000.000 kg-tik beherako emaitza; eta atez ateko ohiko sistema da 2.000.000 kg-tik behera jaisten den bakarra [ikus eskuineko grafikoa].

Gaikako bilketari dagokionez, atez ateko sistemak ia %75 biltzea ahalbidetzen du; atez ate mistoak %66; edukiontzi komunitarioak %65; derrigorrezko bosgarren edukiontziak %58; eta azkenik, bosgarren edukiontziak %35. Gaur egun, %25 soilik biltzen da gaika. Kopuru hauek guztiak hipotesiak dira, eta

«**Edukiontzietan oinarritutako bi sistema eta atez atekoan oinarritutako hiru proposatu dira**»

sistema bakoitzarekin gaika zenbat bilduko litzatekeen ere kalkulatu dute Idemako adituek [ikus eskuineko grafikoa].

Bosgarren edukiontzia jarrita, hau da, orain arteko sistemari materia organikoa biltzeko beste edukiontzi bat gehituta, %23 da konposta egiteko bilduko litzatekeen gaikako bilketa potentziala; derrigorrezko bosgarren edukiontzia jarri gero, ia bikoiztu egiten da kopuru hori %51, eta atez ateko sistemekin %60tik gorako emaitzak lortzen dituzte.

«**Atez ateko sistemek emaitza hobek ematen dituzte hondakin gutxitzean**»

Ontzi arinen bilketari dagokionean ere, alde handia dago borondatezko edo derrigorrezko sistemen artean; bosgarren edukiontziak %31 inguru lortzen duen bitartean, derrigorrezko bosgarren edukiontziak %70 lortzen du. Atez ateko hiru sistemek berdindu egiten dute kopuru hau, baina atez ateko ohiko bilketak ia %85ra igotzen du kopuru hori.

Gauza bera gertatzen da beiraren bilketari dagokionean: kopuru altue-

na %90 atez ateko ohiko sistemarekin lortuko litzateke Idemak eginiko azterketen arabera. Edukiontzi komunitarioen sistemak, atez ateko bilketa sistema mistoak eta derrigorrezko bosgarren edukiontziaren sistemak %85 biltzea ahalbidetuko lukete. Borondatezko bosgarren edukiontziaren emaitzak nabarmen atzerago geldituko lirateke: %69,67.



#### Atez ateko sistemak, sistemarik konprometituenak

Hondakin bilketa sistema guztiak banan bana aztertu eta gero bata besterekin alderatu ditu Idema enpresak. Hala, hondakin gutxitzeari dagokionez, atez atean oinarritutako sistemek emaitza hobek lortzen dituztela ondorioztatu dute. Izan ere, erabiltzaileak hondakin botatzeko duten zailtasunarekin lotura zuzena du hondakin gehiago edo gutxiago sortzeak, enpresak nabarmendu duenez.

Gaika bildutako materialen kalitatea sistema guztiak bermaturik dagoela dio Idemaren azterketak, baina atez atean oinarritutako sistemek soilik bermatzen dute %80 bitarteko emaitzak lortzea; gaineratzen dute ezin dela ziurtatu derrigorrezko bosgarren edukiontziaren sistemarekin hori lortzea. Hain zuzen, borondatezkoak ez diren sistemekin, %60 bitarteko gaikako bilketa lor daitekeela azaldu dute azterketaren ondorioetan.

Kostu ekonomikoari dagokionez, atez atean oinarritutako sistemek kostu handiagoa baldin badute ere (giza baliabideetan batik bat), kostu horiek bilketa mankomunatu batean optimizatu egiten direla gaineratzen dute. Hala ere, sistema gehienetan hondakin jarraipena egiteko baliabideek kostua dakartela zehazten dute.

Bilketa sistemaren aldeko eta kontrako jarrera ere aintzat hartu du Idemak eginiko azterketak, eta argi diote egungo hondakin kudeaketaren inguruko eztabaidak ez duela ahalbidetzen sistema baten aurrean gehiengoaren adostasuna. Eta derrigorrezko sistemek bizilagunen aurkako jarrera sortzeko joera izan dezaketela ezartzerako garaian. Gauzak horrela, hiri hondakin atez ateko sistemaren erabiltzaileen erantzukizuna handiago dela eta gizarteratzea ere handiago dela diote.



Errefusaren eta gaikako bilketaren balizko datuak. ITURRIA: IDEMA



## harpidedun izateak badu saria zozketa

### 1 Plaza Etxeberri Jatetxea

Bi lagunentzako menu berezia

Pedro Mari Otaño plaza • Zizurkil  
Tel.: 616- 647 869

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51




### 2 Donostiako Aquariuma

Bi lagunentzako bina sarrera



www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52



Parte hartzeko deitu: 902-82 02 40 telefono zenbakira • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralearn argitaratuko ditugu.

# Ihesaldi gastronomikoak, turismoa sustatzeko

Tolosa Goxua, Txuleta Festa eta Babarrun Astearekin batera ipini dituzte martxan eskaintza hauek

ERREDAZKIZIOA

Tolosako Udalak eta Tolosaldea Garatzenek bidaia pakete ezberdinak prestatu dituzte turismoa sustatzeko helburuarekin. Tolosaldeko turismo gastronomikoak duen indarra baliatu nahi izan dute horretarako, datozen hilabeteetan ospatuko diren Tolosa Goxua, Babarrun Azoka eta Txuleta Festa aprobetxatuz.

Tolosaldea Tourreko ordezkaria den Olatz Illarregi, Tolosako udaleko Hasier de los Rios zinegotzia eta Rafa Gorrotxategi Tolosa Gourmenten ordezkariak aurkeztu dituzte Gourment ihesaldiak. Duela hamabost egunetik daude eskura eta taldekako zein norbanakoentzako bideratuta daude eskaintzak.

Guztira sei pakete izango dira aukeran, eta guztiek otordu bat, lo egiteko lekua eta ekimen bat dute barnean. Lo lekua, Iriarte Jauregia



Hasier de los Rios, Rafa Gorrotxategi eta Olatz Illarregi, aurkezpenean. E. M.

hotelak, Olazal hotelak eta Korteta nekazalturismoak eskaintzen dute. Gastronomía ekintzez gain, Topic museora edo Tolosako Alde Zaharrera bisita gidatuak sartu dira eskaintza horietan.

Udazken honetan ospatuko diren Tolosa Goxua, Babarrun Azoka eta Txuleta Festa hartu dituzte proba gisa. Tolosa Goxua, urriaren 26-27an izango da, Babarrun Azoka azaroaren 15etik 17ra izango da, eta Txuleta Festa, abenduaren 6tik

8ra. Hiru ekintza hauekin, lanketa egiten ari dira, baina helburua urte osorako paketeak eskaintzea izango da.

Paketeen eskaintzak, 133 eurotik aurrerako prezioa izango dute, eta txartelako eskuratzeko, STI bidai agentziarekin kontaktuan jarri behar da [servitur@stipaisvasco.com](mailto:servitur@stipaisvasco.com) helbidearen bitartez. Euskal herritarrez gain, espainiarrei eta europarrei ere zuzendu dizkiete eskaintza hauek.

# Urrifest Garagardo Azoka ospatuko dute Anoetan larunbat honetan

Gaueko 23:00etan Fiachras eta herriko musikariek osatutako talde txikien kontzertuak izango dira gaztetxean

M. IRAOLA

Larunbatean, garagardoak bustiko du Anoetako herria, izan ere, hirugarren urte Urrifest azokaz gozatzeko aukera izango dute.

Arratsaldeko seietatik aurrera, herriko plazan lau garagardo mota dastatu ahal izango dira. Horietatik hiru, euskal jatorrikoak dira: Etxeko Bob's beer (Hazparnekoa), Etxeandia (Urdulizkoa) eta Naparbier (Iruñekoa). Aurtengo garagardo gonbidatua, berriz, Grimbergen belgikarra izango da.

Ondoren, gaztetxean jarraituko du festak. Izan ere, afaltzeko aukera izango baita 21:00etatik 22:00etara bitartean. Gauean, berriz, 23:00etan, Fiachras taldeak kontzertua emango du, eta gauari amaiera emateko, Anoetako musikari ezberdinek osatutako talde txi-

## Egitaraua

### ANOETAKO III. URRIFEST

**18:00.** Garagardo azoka plazan.  
**21:00.** Afaria gaztetxean.

**23:00.** Kontzertuak: Fiachras eta Anoetarock: herriko musikari ezberdinekin sortutako talde txikiak. Bertsioak interpretatuko dituzte.

**Oharra.** Sarrera doakoa da, baina pitxarra etxetik eraman behar da. Gauean ere, garagardo mota ezberdinak dastatzeko aukera egongo da gaztetxean bertan.

kiek jam session bat eskainiko dute, talde ezagunen kantuen bertsioak joz. Gaztetxean ere garagardo bereziak edaten jarraitzeko aukera egongo da. Horretarako, norbere pitxarra eraman behar du. Sarrera, aldi, doakoa da.

Bestalde, Audientzia Nazionalen epaitzen ari diren euskal herritarren aurkako makroepaiketaz salatzen diren manifestaziora joateko deia zabaldu du gazte asanbladak.

## Gutunak

### LOMCE RI EZI! BEHARREZKOA DA BORROKAK ELKARTZEA!

Ikasturte honen hasieran, PPren gobernuak, bere LOMCEa onartzeko asmoarekin jarraitzeaz gain, udarako hilabeteetan zehar beken dekretu berri bat onartu du. Dekretu horrek Estatu guztian unibertsitateko 100.000 ikasle kanporatuko ditu ikasketak ordaintzeko dirurik ez edukitzearen arrazoi hutsagatik. PPren gobernuak daraman hezkuntza politiken izaera klasista, espainolista eta bereiztatzailea nabarmena eta agerikoa da. Bere helburua, hezkuntza kalitatea ordain

dezakeenaren eskura eta zerbitzura bakarrik dagoen eredu ezartzea itzultzea da, eta era berean, hezkuntza publikoa azken hamarkadetan ezagutu dugun moduan deusezte.

Aurreko ikasturteko urrian eta otsailean Ikasle Sindikatuak-Sindicato de Estudiantesek 72 orduko bi greba deitu zituen. Ikasleen parte hartzea masiboa izan zen Katalunian, Galizian eta Estatuko beste herrietan, baita irakasleen eta gurasoen babesa ere. Maiatzaren 9an hezkuntza komunitate guztian egin zen greba orokorrean (haur hezkuntzatik unibertsitate), parte hartzea berriz ere masiboa izan zen

(Hego Euskal Herrian izan ezik, gehiengo sindikalak ez baitzuen babestu), argi utzi PPren gobernuak erabat isolaturik zegoela LOMCEa defendatzen.

Orain, Ikasle Sindikatua-Sindicato de Estudiantesek Mobilizazio Aste baterako deia zabaldu du ikastetxe guztietara urriaren 21etik 25era, hiru eguneko grebarekin (urriaren 22, 23 eta 24). Aste honen gailurrean, urriaren 24ean, greba orokorra hezkuntza komunitate guztira zabalduko da, gurasoetara, irakasleetara eta ikasleetara, grebara deitzen baitute CCOO, UGT, STES eta CGT sindikatuek eta CEAPA guraso elkarteak ere. Uste dugu

funtsezkoa dela euskal gehiengo sindikalak eta Ikasle Abertzaleak mobilizazioekin bat egitea borroka Hego Euskal Herrian zabaltzeko.

Aldi berean, gure babesa adierazi nahi diegu EAEko hezkuntza kontzertuan sindikatu guztiek (ELA, LAB, CCOO, STEE-EILAS eta UGT) murrizketen aurka eta hitzarmen berriaren alde antolatutako mobilizazioei. Irailaren 26ko greba arrakastatsuen ondoren, urriaren 21etik 25erako astean emango du borroka honek hurrengo pausoa, manifestazioekin, lanuzteekin eta elkarretaratzeekin, ikasle Sindikatua-Sindicato de Estudiantesek deituriko mobilizazio astearen data

berdinetan. Gure ustez, beharrezkoa da borroka hau hezkuntza komunitate guztira zabaltzea, hezkuntza publikora nahiz unibertsitate, ikasle eta gurasoetara, murrizketen eta LOMCEaren aurkako mugimendu zabal batean. LOMCEa errotik geratzeko, murrizketa guztiak atzera botatzeko nahiz hezkuntzako lanpostuak eta lan baldintzak defendatzeko modu eraginkorrena, eta bakarra, elkartzeko eta irmotasunez borrokatzea da, ahalik eta golpe indartsuena jotzeko erasoan eta murrizketen erantzule diren gobernuak: PPrena nahiz UPNrena eta EAJrena. **Iker Otermin, Euskal Herria Sozialista aldizkariaren izenean.**

### DESOBEDIENTZIAREN BIDEA ASPALDI IREKI ZEN HERRI HONETAN

2009ko azaroaren 24an, goizaldeko ordu txikitan Guardia Zibila eta Polizia Nazionalak 34 gazte independentista atxilotu gintuzten Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan. Lege antiterroristaren itzalean inkomunikatu eta torturatu gintuzten Madrileko txakurtegietan eta Marlaskaren aginduz espetxeratuak izan ginen gehienak. Hilabete batzuk beranduago, torturatik ihes egitea lortu zuten 5 gazte atxilotu zituzten Lapurdin eta beste 3 Italian.

Euroagindua aplikatuz espainiar eta espetxeratuak izan ziren hauek ere.

Segiko kide izateaz akusatu gintuzten guztiok, justizia espainiarrik terrorista izendatutako gazte antolakundea. Espetxean urtebete eta bi artean igaro genituen eta milaka eurotako fintzak ordaindu ondoren baldintzapeko askatasunean aurkitzen gara guztiok: aldioro epaile baten aurrean aurkezteko betebeharrarekin eta askok Espainiar estatutik ateratzea galarazita dugu.

Aste honetan hasi da Madrilén 40 gazterenen aurkako epaiketa, bakoitzak 6 urteko espetxe zigor es-

kaera dugularik. Audientzia Nazionalak ez du zilegitasunik euskal herritarrek epaiketzeko, salbuespen neurrietan oinarrituta baitago. Behin eta berriz, torturapean lortutako testigantzekin zigortu baititu militante euskaldunak.

Egoera honen aurrean planto egin dugu: ez diegu erraztasunik emango gazte independentistak bidegabeki zigortzeko, ez diegu erraztasunik emango konpromisoa espetxeratzeko, ez diegu erraztasunik emango hurrengo belaunaldiak erreprosioren bidez baldintzatzeko.

Euskal Herri askea dugu amets,

independentea, sozialista, feminista eta euskalduna. Borroka hontan murgildu ginenetik, argi genuen erreprosioren hatzaparrak hurbil izango genituela, baina gu espetxeratzeak ez du gure militantzia indartu baino egin. Konpromiso honek bultzatu gaitu erabaki hau hartzera. Argi dugu gure militantzia eragina izango duela, baina ezinbestekotzat jo dugu une honetan guztia baldintzatzeko aurrerapausuak eman ahal izateko. Gure etorkizunaren jabe izateko modu bakarra baitugu: antolatzea, borrokatzea eta eguneroko garaipen txikiez askatasunean bizitzea. Desobedientziaren bidea

aspaldi ireki zen herri honetan, inposatutako lege eta zigorrekin aurre egiteko. Guk bide horretan beste urrats bat eman nahi dugu, baina gure ekimenak ezinbestean herritarren babesa, parte hartzea eta kolaborazioa behar du. Gurekin batera lanera gonbidatzen zaituztegu dinamika honek fruituak eman ditzan. Herri bat paren izanik soilik lortuko dugu lotuta gaituzten estatuak murrizteko eta horretarako lehen zita urriaren 26an, larunbatean, dugu Bilbon.

Animo eta kalean ikusiko gara! **Irati Mujika, Idoia Iragorri, Goizane Pinedo eta Unai Ruiz Pou**

# Espaloia ere izango du Adunako errepide berriak



Azken asteetan bidean obretan ari dira. A. I.



Adunara igotzeko errepidea zabaltzearekin batera, oinezkoentzako eta bizikletan dabilzanentzako bidea osatuko du udalak.

## AMAIA GOIKOETXEA AZPEITIA

Azken asteetan Adunara igotzeko bigurutzetik pasa denak itxita ikusi du bidea; eta datozen hilabeteetan ere, Andoaindik hurbilago dagoen aldetik igo eta jaitsi beharko dute bizilagunek. Izan ere, errepidea zabaltzeko lanetan dabilta: «Diputazioarena da errepidea, eta aspalditik, urteetan, aritu gara bidea zabaltzeko eskatuz, estua eta ondorioz, arrisku-sua ere bazelako», azaldu du Josu Amilibia Adunako Alkateak Atariari eskaintako elkarrizketan.

«Tirabira askoren ondoren lortu dugu Diputazioak lan horiek egitea. Bide batez, espaloia ere egitea proposatu genuen udaletik», gaineratu du Amilibiak. Herrian gora eta behera ibiltzeko, jendeak autoen bide berbera erabili behar zuen, eta hura zabaltzeko lanak egin behar direla baliatuz, espaloiarekin osatzeko proiektua aurrera eramatea lortu du Udalak. «Foru aldundiak ez ditu lan horiek egiten, baina akordio batera

iritzi gara: lan beraren barruan egingo dira biak, baina Diputazioak errepidearen zabaltzea ordainduko du eta udalak hartuko du bere gain espaloia dagokion zatia», azaldu du. Herriarentzat inbertsio oso handia dela aitortu du alkateak baina «oso beharrezkoa eta estrategikoa» ere baderitzo «mugikortasun eta segurtasun aldetik». Urriaren hasieran ekin zien errepideko lanei, eta abendu amaiera edo urtarrila hasiera bitarte luzatzea aurreikusten da. «Bidea guztiz itxita dagoelako orain gogaikarria izan arren, merezi duela iruditzen zait, herriak asko irabaziko baitu», ziurtatu du Amilibiak.

Horrela, epe ertainean, hirigintzari dagozkion azpiegitura lanak amaitzat joko dituzte Adunan: «Azken 10-15 urteetan herriak aldaketak izan ditu, eta uste dut oso txukun geratu dela», azaldu du. Adunako erdiguenea oinezkoentzat prestatuta dago, errepidea kanpoaldean geratuz eta sagardotegietarako bidean ere urbanizazio lanak burutu dituzte aldaketen zerrenda horretan. Honenbestez, hemendik aurrerakoan, udalak beste mota bateko egitasmoetara bideratuko ditu baliabideak: «hormigoia oraingoz alde batera utzi eta lehen baino modu indartsuagoan ekingo diegu ekimen sozialei orain», azaldu du Josu Amilibia Adunako alkateak.

Etxebizitzak aurrerago 2007 urtearen inguruan etxebizitzaren bi promozio eskaini ziren herriarentzat: «Adunako gazteek edo etxebizitza behar izan dutenek aukera izan dute herrian geratzeko, eta horrekin jarraitu nahi dugu», azaldu du Amilibiak. Kamio base-rriaren inguruan etxebizitzak egiteko proiektua badagoela azaldu du. Martxan beharko lukeela aipatu du, baina etxebizitza tasatuen eskaintza hau atzeratu egin da: «etxebizitzaren prezioa taxuzkoa izatea nahi dugu, ez da erraza, eta proiektua birplanteatzen gabilta ea nola egin dezakegun».

Kirol azpiegiturei dagokionez, frontoiaz gain, beste azpiegitura txikiagoren bat erantsiko lukeela azaldu du: «Eskolaren aldamenean, futbola, saskibaloia, eskubaloia, eta antzekoak egitea ahalbidetuko lukeen toki bat gauzatzeko proiektua badago aspalditik, baina horretarako ere dirua behar da. Noizbait egin nahi dugu, baina ez da posible izango epe motzean burutzea». Hori litzateke azpiegituren plangintza birbiltzeko proiektua Amilibiaren aburuz. Lehenatasuna, ordea, gizarte gaietara emango zaiela azpimarratu du alkateak.

## AHTaren eragina

Abiadura Handiko Trenaren proiektua tunel bidez igaroko da Adunatik: Zizurkildik hurbildu, Belkoainen sartu, eta Andoainen, Bazkardo inguruan irtengo da. «Kaleko lanik ez dagoen aldetik eragina txikiagoa dela esan daiteke, baina hasierako lanek eragin handiagoa izan dute gure kasuan», azaldu du. Tunela zulatzean ateratako soberakinek eta haren inguruan egindako lanek landa eremuko lurrak egoera txarrean utzi zituzten, horietako batzuk nekazaritzarako eta abeltzaintzarako lurrak zirelarik. Era berean, Miravalleseko meatze kutsatuak bere onera ekartzekoak ziren. «Departamentu eta eragile ezberdinen artean bilerak egin genituen, eta azkenik, AHTaren lanen ondoriozko soberakin horiek meatzea betetzeko erabili genituen: hura berreskuratu eta bete lana egiteko. Hala, genituen bi buruhauste horiei batera aurkitu diegu konponbidea», adierazi du.

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



Goiza



Arratsaldea



24°



16°

Goiza: Lainotuta  
Arratsaldea: Lainotuta  
Beroena: 23°  
Hotzeta: 17°

**Argitaratzailea:** Tolosaldeko Komunikazio Taldea SL  
**Lege Gordailua:** SS-1323-2013  
**Zuzendaria:** Ainhoa Oartzabal.  
**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**P.E:** ataria@ataria.info **Webgunea:** ataria.info  
**Papereko editorea:** Eneritz Maiz.  
**Interneteko editorea:** Imanol Garcia Landa.

**Irratiko editorea:** Jon Miranda.  
**Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818. tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.info  
**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.info  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaledea@ataria.info  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@ataria.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@ataria.info

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

• Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil  
Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:



Tolosaldeko gizarte eragileak

Ataria-k Bai Euskarari



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Saharara egindako bidaiak, kasualitatez erakutsiak



Alegiako Erretirodunen tabernan ikusi daiteke bidaia ezberdinetan ateratako argazkien erakusketa. A. I.

## Olga Gurrutxagak Saharan ateratako argazkiak bildu ditu, eta Alegiako Erretirodunen tabernan daude ikusgai

ASIER IMAZ ALEGIA

Sahararekin lehen lotura duela lau-bost urte izan zuen Olga Gurrutxaga (Tolosa, 1983). Bertako haur bat ekartzen dute udan etxera. Medikua da lanbidez tolosarra, eta familia ezagutzeko egin zuen lehen bidaian bertako beharrak ikusita, Mundu

bat Gobernu Kanpoko Erakundearen sartzeko erabakia hartu zuen: «Bertara lana egitera joaten naiz urtean behin edo bitan. Lana egin eta erakusten saiatzen gara». Urteak horrela daramatzatela, eta behar asko dagola nabarmendu du, baina GKE moduan zalantza adierazi du ondo egiten ote duten bertara joaten.

Argazkilaritza afizio du, eta argazkiak inongo asmo jakinik gabe atereak dira. Orain, «kasualitatez» Alegiako Erretirodunen tabernan jarri ditu ikusgai, eta bertan egongo dira hilabete hau amaitu artean. Saharako lurralde okupatuaren askatasunik eza irudikatzeko sarea jarri die argazki guztiei, eta udan etxean izaten duen haurrak jarri die izenburua guztiei, arabieraz: «Jendeak ez du ulertuko, baina kanpotar bati hona etortzean berdina gertatzen zaio», gaineratu du.



## Zorion Agurrak

Urtebetetzeak  
Ezkontzak  
Jaioberriak  
...



**AGURRAK**  
943-65 56 95

ataria@ataria.info



**tolosaldeko ataria**

Egin zaitez atarikide!

943-65 56 95  
atarikide@ataria.info

Mauka berria

GAURKO ESKAINTZA

Zinerik onena etxean, euskaraz.

BARTON FILMS  
Uribitarte, 8 - 4. esk.  
BILBO 48001 - BIZKAIA  
Tel.: 94-424 05 59  
bartonfilms@bartonfilms.com  
www.bartonfilms.com



Prezioa  
**19,95€**



www.mauka.eu

berria taldea